Sarbidea justiziara eta Doako Justizia

Justiziara sarbidea izatea oinarrizko eskubidea da, eta hala aitortuta dago Eskubideen Adierazpen Unibertsalean zein Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean.

Espainiako Konstituzioak jasotako eskubidea da, eta auzian aritzeko behar den besteko bitartekoak ez dituztenen doako laguntza juridikoa barruan hartzen du. Eskubide horrek oinarrizko beste eskubide batzuetan ere eragina du, hala nola, berdintasun-eskubidea, atxilotuak abokatu-laguntza izateko eskubidea edota defentsa eta babes judizial eragingarria izateko eskubidea.

Zerbitzu publikoa da, funts publikoekin finantzatuta dago, eta horren legezko kudeaketa modu esklusiboan abokatutzaren eta prokuradoretzaren esku dago, defentsa juridikoari eta herritarrak ordezkatzeari dagokionez, hurrenez hurren.

Nork du Doako Justizia izateko eskubidea?

Doako Laguntza Juridikorako eskubidea dute, onura publikoko zenbait erakundez aparte, honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek: OAEAP 2 bider gainditzen ez dutenek, baldin eta familia-unitate batean txertatutako pertsonak ez badira, OAEAP 2,5 bider gainditzen ez dutenek, baldin eta lau kide baino gutxiagoko familia-unitate modalitateetako batean txertatutako pertsonak badira, OAEAP 3 bider gainditzen ez duten pertsonek, baldin eta 4 kide edo gehiagoko familia-unitate batean txertatutako pertsonak badira. OAEAP: 12.780 euro (Urteko berrikuspenerako kontsultatu www.IPREM.es).

Salbuespen gisa, boskoitza gainditu gabe, zenbateko hori gainditzen duten pertsonei ere aitortu dakieke, baldin eta aparteko karga ekonomikoak edo familiakoak badituzte. Eta, bestalde, ukatu egin dakieke zenbateko horretara iristen ez badira ere, baldin eta kontuan hartu beharreko kanpoko aberastasun-aztarnak badaude.

Nora jo

Eskubidera eta doako justiziara sarbidea izan nahi dutenek abokatuen elkargoetara jo behar dute, horiek baitira doako justiziaren eskaerak izapidetzen dituzten Orientazio Juridikoaren Zerbitzuak kudeatu eta antolatzearen arduradunak. Horrez gain, abokatuen elkargoetan Ofizioko Txanda izapidetzen da, eta horretara profesional libre eta independenteak biltzen dira. Profesional horiek haien zerbitzuak eskatzen dituztenei ematen dizkiete, abokatutzari aplikatzeko moduko arau deontologikoak errespetatuz.

Informazio gehiago izateko zure abokatu elkargora jo:

A Coruña
www.icacor.es
Araba
www.icaalava.com
Albacete
www.icalba.com
Alcalá de Henares
www.icaah.com
Alcoy
www.ica-alcoy.com
Alicante
www.icali.es
Almería
www.icaalmeria.com
Alzira
www.icaalzira.com
Antequera
www.icantequera.es
Ávila
www.icaavila.com
Badajoz
www.icaba.es
Barcelona
www.icab.cat
Bizkaia
www.icasv-bilbao.com
Burgos
www.icaburgos.com
Cáceres
www.icac.es
Cádiz
www.icadiz.net
Cantabria
www.icacantabria.es
Cartagena
www.icacartagena.com
Castellón
www.icacs.com
Ceuta
www.icace.org
Ciudad Real
www.icacr.es
Córdoba
www.icacordoba.com
Cuenca
www.icacuenca.org
Elche
www.icae.es
Estella
www.icaestella.com
Ferrol
www.icaferrol.es
Figueres
www.icafi.org
Gijón
www.icagijon.es
Gipuzkoa
www.icagi.net
Girona
www.icag.cat
Granada
www.icagr.es
Granollers
www.icavor.cat
Guadalajara
www.icaguadalajara.org
Huelva
www.icahuelva.es
Huesca
www.icahuesca.es
Illes Balears
www.icaib.org
Jaén
www.icajaen.es
Jerez de la Frontera
www.icabjerez.es
La Rioja
www.icar.es
Lanzarote
www.icalanzarote.com
Las Palmas
www.icalpa.com
León
www.ical.es
Lleida
www.advocatslleida.org
Lorca
www.icalorca.es
Lucena
www.icalucena.com
Lugo
www.icalugo.org
Madrid
www.icam.es
Málaga
www.icamalaga.es
Manresa
www.icam.net
Mataró
www.icamat.cat
Melilla
www.icamelilla.es
Murcia
www.icamur.org
Orihuela
www.icaorihuela.com
Ourense
www.icaourense.es
Oviedo
www.icaoviedo.es
Palencia
www.icapalencia.com
Pamplona
www.micap.es
Pontevedra
www.icapontevedra.es
Reus
www.advocatsreus.org
Sabadell
www.icasbd.org
Salamanca
www.icasal.com
Sant Feliu de Llobregat
www.icasf.cat
Santa Cruz de la Palma
www.icalapalma.org
Santa Cruz de Tenerife
www.icatf.es
Santiago de Compostela
www.icasantiago.org
Segovia
www.icasegovia.com
Sevilla
www.icas.es
Soria
www.icasoria.com
Sueca
www.icasueca.com
Tafalla
catafalla@telefonica.net
Talavera de la Reina
www.icolabotal.com
Tarragona
www.advocatstarragona.com
Terrassa
www.icater.org
Teruel
www.icat.es
Toledo
www.icatoledo.es
Tortosa
www.advocatstortosa.org
Tudela
www.icatudela.com
Valencia
www.icav.es
Valladolid
www.icava.org
Vic
www.icavic.cat
Vigo
www.icavigo.org
Zamora
www.icazamora.es
Zaragoza
www.reicaz.es

edo bisita ezazu: www.justiciagratuita.es

#DiaJusticiaGratuita

Abogacía Española
CONSEJO GENERAL

Paseo de Recoletos, 13 - 28004 Madrid
Telf.: 91 523 25 93
Fax: 91 532 78 36
informacion@abogacia.es
http://www.abogacia.es

Zer eskubide ditut Orientazio Juridikoaren zerbitzuan?

1 Doako laguntza juridikoa eskatu nahi duenak, inolako kosturik gabe, abokatuen elkargoetako Orientazio Juridikoaren Zerbitzura (OJZ) jo dezake, eta hurrengo hauetarako eskubidea izango du:

- Arreta egokia, bulego duinetan eta aurretik zehaztutako ordutegietan.
- Doako justiziarako eskubidea aitortzeko betekizunei buruzko informazioa jasoko du: betekizun ekonomikoak, aurkeztu behar dituen agiriak, epeak, etab.
- Aholkularitza eta orientazioa prozesuaren aurretik. Horren barruan hasierako analisia sartzen da, egikaritu nahi den uzia bideragarria den edo ez ikusteko.
- Eskubidea eskatzeko eredua idaztean laguntza izango du.
- Doako laguntza juridikoaren eskaera ebatzi egingo da, eskubidea behin-behinean aitortuz edo ukatuz. Horrez gain, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak abokatuen elkargoko ebazpena baieztatu edo ezeztatuko du.
- Ebazpena modu judizialean aurkaratuko da horrekin ados egon ezean.
- Doako laguntza juridikorako eskubidea ukatzearen ondorioei buruz informazioa jasoko du.

Noraino iristen da nire eskubidea?

2 Doako Laguntza Juridikorako eskubidea duen pertsona orok, besteak beste, hurrengo hauetarako eskubidea du:

- Ofizioko abokatua eta prokuradorea izendatzea horrelakoa egotea beharrezkoa den prozeduretan. Abokatuaren esku-hartzea nahitaezkoa ez bada, epaitegiari eskatu ahal dio, modu ziodunean, abokatuen elkargoak izendatu dezala.

* Prozedurara bere konfiantzako profesionalekin ere joan daiteke, bai ordainsariak ordainduz, bai azken horiek ordainsariak jasotzeari uko eginez, Doako Justiziaren gainerako onurak galdu gabe.

- Adituen doako laguntza, horrelakoa beharrezkoa denean.
- Jatorrizko hizkuntzan interpretea izateko eskubidea.
- Epaiketan prozesuko kostuak ordaintzea egokitzen bazaio, kostu horiek ez ditu ordaindu beharko, 3 urteko epean diru gehiago ez badu (IPREM bider lau).
- Tasa judizialak eta errekurtsoak jartzeko beharrezko gordailuak ordaindu beharretik libre geratzeko.
- Aldizkari ofizialetan ediktuak edo iragarkiak doan sartzea.
- Notariotzetako eta Erregistroetako arantzelak murriztea, eta herritarraren urteko diru-sarrerak IPREM baino txikiagoak badira, arantzel horietatik salbuetsita egotea.

Abokatuaren laguntzari lotutako eskubideak

3 Ofizioko profesionala abokatuen elkargoak izendatuko du eta eskatutako esperientzia eta trebakuntza betekizunak bete beharko ditu.

4 Abokatuaren laguntza doakoa izango da, kasu hauetan izan ezik. Kasu hauetan, profesionalari egindako lanarengatik ordainsariak ordaindu beharko dizkio:

- Doako Laguntza Juridikorako eskubidea aitortuta ez izatea.
- Auzian irabaztea eta prozesuko kostuak ez ezartzea. Kasu horretan, ordainsari horiek ordaindu beharko ditu, betiere, berak lortutako kopuruaren herena baino gehiago ez badira. Kopuru hori baino gehiago badira, heren horretara murriztuko dira, eta kasuan kasuko partidekin hainbanaketa egingo da.
- Azkenaldian diru gehiago irabaztea, goian adierazitakoaren arabera.

5 Kasuak eskatzen duen bizkortasunarekin informazioa jasotzea, modu eta leku egokian. Xede horretarako, profesionalaren eskura informazio eta dokumentazio guztia jarriko ditu, laguntza arretatsua eskainiko dio eta helbidea edo harremanetarako telefono-zenbakia aldatuz gero, horren berri emango dio.

6 Profesionalak uzia bideragarria den jakinaraziko dio, eta bideraezina dela pentsatzen badu, fiskaltzak eta abokatuen elkargoak irizpena emango dute. Batak edo besteak uzia bideragarria dela pentsatzen badu, bigarren profesional bat izendatzeko eskubidea izango du, eta horrentzat kasuaren defentsa nahitaezkoa izango da; biek bideraezina dela egiaztatzen badute, eskaera bertan behera utziko da.

7 Prozeduraren egoerari eta horren barruan emandako ebazpenei buruzko informazioa jasoko du eta, hala denean, jar daitezkeen errekurtsoen jatorria zein den jakingo du.

8 Abokatuen elkargoan Orientazio Juridikoaren Zerbitzua dela-eta edo izendatutako profesionalaren esku-hartzea dela-eta dituen kexak formulatu ahal izango ditu.

9 Abokatuen elkargoek zerbitzuaren funtzionamendua, kalitatea eta jarraipena behar den modukoak izatea zainduko dute eta jasotako kexak ebatzi eta ukitutakoari hartutako erabakia jakinaraziko diote.



Eskubidearen hedadura

Doako Laguntza Juridikoa kasuan kasuko prozedurari lotutako izapide, intzidentzia eta errekurtso guztietara hedatzen da, baita ebazpen judiziala gauzatzeari ere bi urtez.

Arreta zaurgarrienei

10 Neurri bereziak daude zaurgarritasun handiena duten kolektibo batzuentzat.

- Genero-indarkeriaren biktimak, terrorismoarenak, gizakien salerosketarenak, auzitara jotzeko errekurtsoak dauden ala ez kontuan izan gabe. Hala eskatzen duten genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeek laguntza juridiko berehalakoa eta espezializatua jasoko dute Abokatuen Elkargo guztietan ezarritako 24 orduko zaintza-erregimenaren bitartez.
- Atzerritarrak: nazioko herritarren baldintza berberetan doako justizia lortzeko eskubidea dute, eta gainera, asilo-eskaerari buruzko administrazio-prozeduretan edo nazioko lurraldean sartzea, itzultzea edo kanporatzea eragin dezaketen prozeduretan ere.
- Langileak eta Gizarte Segurantzaren onuradunak: diru-sarrerak gorabehera, lan arloan doako laguntza dute epaiketan defendatzeko, eta laneko kredituen eraginkortasunerako merkataritza arloan.
- Desgaitasuna eta ezintasun iraunkorra, osoa, absolutua edo ezintasun handia duten pertsonak eta kategoria bereziko familia ugariak: doako justizia izan dezakete, bitartekoak eta sarrerak IPREMen bikoitza baino handiagoak izan arren, zifra hori laukoizten ez badute.
- Adingabeak eta adimen-desgaitasuna duten pertsonak abusuzko egoeren edo tratu txarren biktimak direnean, auzitara jotzeko errekurtsoa badago eta ez badago: adingabeek eskubidea dute abokatu espezializatua izateko erantzukizun penalak eskatzen zaizkien prozesuetan.
- Atxilotuak: Atxilotuari laguntzeko eskubidea Konstituziora bildutako eskubidea eta abokatuen elkargo guztietan ezarritako 24 orduko guardiako zerbitzuak bermatzen du.

Herritarraren eginbeharrak doako justiziaren aurrean

Doako Laguntza Juridikoa funts publikoekin finantzatutako zerbitzu publikoa da. Hori dela eta:

1 Ez da Doako Justiziaren onura eskatu behar aurretik azaldutako legezko betekizunak betetzen ez badira, eta benetako egoera ekonomikoa zintzotasunez agertu behar da.

2 Eskubide hau tentuz erabili behar da, horretatik benetako beharrizana duten pertsona guztiek onurak lortu ahal izateko.

3 Orientazio Juridikoaren Zerbitzuak edo elkargoko zerbitzuek eskatutako informazio eta dokumentazio guztia gehitzeko beharra Doako Justiziaren eskaera izapidetzeko.

4 Izendatutako profesionala errespetatu eta begirunez hartu behar du.

5 Era berean, eginkizuna gauzatzeko behar duen informazio eta dokumentazio guztia eman behar dizkio, lankidetzan aritu behar da eta uneoro harremanetarako datuak eman behar dizkio.

6 Jasotako zerbitzuengatik lanbide-ordainsarien kostua ordaindu behar du, legez bidezkoak diren kasuetan.

7 Abokatuen elkargoari doako laguntza juridikoa osatzen duten zerbitzu edo jardunen funtzionamendu desegokia jakinarazi behar dio.